

**URDULIZKO ALFREDO ESPINOSA OSPITALEKO ORDEZKAPENETARAKO ETA BEHIN-
BEHINEKO LANPOSTUETARAKO ZERRENDAN IZENA EMATEKO EPEA IREKITZEA**

JARRAIBIDEAK

Osakidetzaren Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiak (2011ko ekainaren 6ko EHAA), Osakidetzan aldi baterako kontratazio-zerrendak egin eta kudeatzea arautzen du.

2016ko uztailaren 1ean Urdulizko Alfredo Espinosa Ospitalea inauguratu zen, eta Uribe ESlaren barruan dago.

2017ko apirilaren 24an, Osakidetzaren Giza Baliabideetako zuzendariak 100/2017 Ebazpena eman du, Urdulizko Alfredo Espinosa Ospitalea ireki izanaren ondorioz hainbat kategoriatako ordezkapenen eta behin-behineko lanpostuen zerrendetan izen epateko epea irekitzeko.

Instrukzio hauetan zehazten da nork parte har dezakeen prozesu honetan, zer kategoria ukitzen dituen ebazpenak, nola parte hartu daitekeen, hautatutako destinoak aldatzeko eta aukeratzeko zer aukera dauden eta zer epe dagoen.

Jarraibide orokorrak:

- 1 **Nork eska dezake** Urdulizko Ospitaleko ordezkapenen zerrendetan izena ematea.

Kasuan kasuko kategoriako ordezkapen-zerrendako edozein pertsonak.

- 2 **Eraginpeko zerrendak:**

Urdulizko Ospitalerako irekiko diren zerrenda bakarrak dira hurrengo puntuan aipatzen diren kategoriei/lanpostu funtzionalei dagozkien ordezkapen-zerrendak.

Ezin da aldaketarik egin, ezta aukeraketa berririk ere, bitartekotzen zerrendetan.

- 3 **Kategoria/Lanpostu funtzional** hauetan eska daiteke Urdulizko Ospitaleko ordezkapenen zerrendetan izena ematea.

Kategoriak	Indarreko kontratazio-zerrenda
ANESTESIOLOGIA ETA BIZKORKETAKO FEM	2014
APARATU DIGESTIBOKO FEM	2014
KARDIOLOGIAKO FEM	2014
KIR. ORTOP. ETA TRAUMATOLOGIAKO FEM	2014
KIRURGIA OROKORREKO FEM	2014
DERM MED KIRUR ETA BEN FEM	2014
ENDOKRIN ETA NUTRIZIOKO FEM	2014
ETXEKO OSPITALIZAZIOKO FEM	2014
BARNE-MEDIKUNTZAKO FEM	2014
PNEUMOLOGIAKO FEM	2014
NEUROLOGIAKO FEM	2014
OBSTET ETA GINEKOLOGIAKO FEM	2014
OFTALMOLOGIAKO FEM	2014
ONKOLOGIA MEDIKOKO FEM	2014
OTORRINOLARINGOLOGIAKO FEM	2014
PSIKIATRIAKO FEM	2014
ERRADIODIAGNOSTIKOKO FEM	2014
ERREUMATOLOGIAKO FEM	2014
LARRIALDIETAKO FEM	2014
UROLOGIAKO FEM	2014
PREBENTZIOKO MEDIKUNTZAKO FEM	2014

ANALISI KLINIKOETAKO FEM-TEK	2011
ERIZAINZA	2014
ERIZAINZAKO LAGUNTZAILEA	2014
ERRADIODIAGNOSTIKOKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA	2014
ANATOMIA PATOLOGIKOKO ETA ZITOLOGIAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA	2011
LABORATEGIKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA	2011
FARMAZIAKO LAGUNTZAILEA	2014
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	2014
ZELADOREA	2014

4 Prozedura:

Hautagaiak Urdulizko Ospitaleko ordezkapen-zerrendetan sartzen dira agiri honetan deskribatu den sistema elektronikoaren bitartez. Ez da paperezko eskabiderik onartuko, ezta adierazitakoa ez den beste edozein euskarritan aurkeztutako eskabiderik ere.

2014ko kontratazio-zerrendetako kategorietarako, helbide honen bitartez sartu behar da: <https://lc2014.osakidetza.eus/>

2011ko kontratazio-zerrendetako kategorietarako, berriz, helbide honen bitartez sartu behar da: <https://lc2011.osakidetza.net/>

5 Destino-aukeraketaren gaineko aldaketa posibleak

5.1 Bitarteko lanpostuen zerrenda: Ezin da aldaketarik egin.

5.2 Ordezkapenak egiteko zerrenda:

5.2.1 ***Bi erakunde hautatuta dituzten eta Uribe ESIa horien artean ez duten pertsonak:*** Lehenago aukeratutako bi Erakundeen arteko bati uko egin beharko diote, eta Uribe ESI osoa hautatu, edo Uribe ESIko 5 zentro gehienez, baldin eta horietako bat Urdulizko Ospitalea bada.

5.2.2 **Erakunde bakarra hautatuta duten eta erakunde hori Uribe ESia ez den pertsonak:** Uribe ESI osoa hautatu ahalko dute, edo Uribe ESiko 5 zentro hautatu ahalko dituzte gehienez, baldin eta horietako bat Urdulizko Ospitalea bada.

5.2.3 **Dagoeneko Uribe Esia hautatuta duten pertsonak:**


- Uribe ESI osoa hautatuta badute: ofizioz sartuko zaie Urdulizko Ospitalea; ez dute aukeraketarik egin behar. Urdulizko Ospitalea gehitzea nahi ez badute, Uribe ESiko 5 zentro hautatu beharko dituzte gehienez.
- Uribe ESiko lau destino ere hautatuta badituzte, Urdulizko Ospitalea hauta dezakete.
- Uribe ESiko bost destino badituzte hautatuta, Urdulizko Ospitalea hauta dezakete, baldin eta lehenago Uribe ESIan hautatutako bost destinoetako bati uko egiten badiote.

6 Epea

04/26tik 05/05era (14:00 orduetara), biak barne.

ZURE ESKAERA APLIKAZIO INFORMATIKOAN ALDATZEKO JARRAITU BEHARREKO URRATSAK

- 1.- Idatzi helbideen barran Osakidetzaren helbidea: www.osakidetza.euskadi.eus
- 2.- Sakatu «**Profesionalak**» jartzen duen lekuan.
- 3.- Sakatu «**Hautaketa eta Horniketa**» jartzen duen lekuan.
- 4.- Sakatu «**Aldi baterako kontratazioa**» jartzen duen lekuan.
- 5.- Sakatu «**2014ko kontratazio-zerrendak**» jartzen duen lekuan.(a)



The screenshot shows the website interface with the following elements and navigation steps:

- Step 1:** Points to the URL www.osakidetza.euskadi.eus/r85-gghome00/eu.
- Step 2:** Points to the 'Profesionalak' button in the top navigation bar.
- Step 3:** Points to the 'Hautaketa eta horniketa' menu item in the 'INFORMAZIO OROKORRA' section.
- Step 4:** Points to the 'Aldi baterako kontratazioa' option in the 'Giza baliabideak' dropdown menu.
- Step 5:** Points to the 'Kontratazio-zerrendak 2014' option in the list of contracts.

(a) «**2011ko kontratazio-zerrendak**» jartzen duen lekuan sakatu beharko duzu zure kategoria hauetako bat baldin bada:

- Fakultatibo espezialista analisi klinikoetako mediku-teknikoa
- Laborategiko teknikari espezialista
- Anatomia patologikoko eta zitologiako teknikari espezialista.

6.- Hizkuntza aukeratu ondoren, sakatu «kontsulta pertsonalizatuak» jartzen duen lekuan (b)




(B) Eskaera berriak egin ezin direnez, horretarako aukera desgaituta dago.

Dokumentu honetan adierazitako aldi baterako zerrenden kategoriaren batean izena emateko eskaera eginda duten horiek bakarrik egin ditzakete Urduliz Ospitaleari eragiten dioten aldaketak.

7.- Idatzi zure NANA edo AIZa letrekin, punturik, hutsunerik eta marrarik gabe. Ondoren, sakatu «Bidali» botoia.

8.- Idatzi zure sarbideko pasahitza. Gogoratzen ez baduzu, jarraitu web-orri berean agindutako jarraibideei (c)



Hasiera

eu | es

Non: Hasiera > Norberari egokitutako kontsultak

Kontratazio-Zerrendak

- >> Informazio orokorra
- >> EPE 2011ko oinarriak
- >> Kategoriak Osakidetzan
- >> Zerrendak
- >> **Kontsulta pertsonalizatuak**

Sartzeko kontrola

Identifikaziorako idatz ezazu bietako bat:

NAN / AIZ:

7 → Bidali

Sartzeko kontrola

Pasahitzaren bidezko identifikazioa:

Pasahitza *: Bidali ← 8

Sartu behar duzun pasahitza da:

- 2011ko EPEan izena eman bazenuen: izena emateko erabili zenuena.
- 2011ko EPEan izenik eman ez bazenuen, baina onartuta bazeuden 2011ko Kontratazio-Zerrendetan: zerrenda horietan izena emateko erabili zenuena.
- Aurrekoez baliatuta ezin baduzu zerrendetan izenik eman, baina Osakidetzan lan egin eta bertan curriculum baduzu, kontratazio-zerrendetara sartzeko pasahitza curriculumekoa izango da.
- Aurreko ataletan ez bazaude, aplikaziora lehen aldiz sartzean adieraziko zaizun pasahitza erabili beharko duzu.

Pasahitza gogoratu beharko duzu etorkizunean kontsultak egin eta eskabidea aldatu ahal izateko.

↓

pasahitza gogoratzen ez baduzu, **hemen** sakatu ahal duzu. Kasu horretan pasahitza prozesuan emandako posta elektronikora bidaliko da (2011ko EPEa, 2011 Kontratazio-zerrendak eta abar). Horrela pasahitzik lortzen ez bada, edo dalitako pasahitzak ez badu eskabiderik egin baimentzen, 945006150 zenbakira deitu edo lp-lc@osakidetza posta elektronikora idatzi, eta bertan esango dizute pasahitza nola eskatu eta jaso.

(c) **GARRANTZITSUA.** Sarbideko pasahitza kontratazio-zerrendan izena eman zenuenean erabili zenuena da. Izena ematean zure pasahitza aldatu bazenuen, aldaketa horren ondorioz ezarri zenuen pasahitza erabili beharko duzu orain.

Gogoratzen ez baduzu, «hemen» jartzen duen lekuan sakatu beharko duzu. Horrela zure pasahitza zure helbide elektronikora bidaliko dizute (izena emateko eskaera egin zenuenean eman zizutena). Hala ere zure pasahitza berreskuratzerik izango ez bazenu, Osakidetzarekin harremanetan jarri beharko zenuke, 945006150 telefono-zenbakira deituta edo honako helbide elektroniko honetara idatzita: lp-lc@osakidetza.eus. (NAN eskaneatua, izen-abizenak eta harremanetarako telefonoa). Bertan, jarraitu beharreko prozedura adieraziko dizute. Mesedez, ez utzi azken unerako zure eskaera egitea.

9.- Zure pasahitzarekin behar bezala identifikatu ondoren, «Aldatu» aukera sakatu behar duzu



Menua Kotsulta pertsonalizatuak

Eskabidea:


Kotsulta

Aldaketa 

10.- Zure eskaerako 1. urratsera sartuko zara (datu pertsonalak).


Formulario horretan [ezin da EZER aldatu](#).

Saiatuko bazina, aplikazioak aurreko atalera aterako zintuzke. Sakatu «**Jarraitu**» jartzen duen lekuan, formularioaren azpiko aldean.



Norberari egokitutako kontsultak: eskabide-orria

1. Zatia: norberaren datuak | 2. Eskabidearen datuak

 **Kontratazioetarako zerredentan sartzeko eskabidea**

Categoría - Especialidad / Categoría - Espezialitatea

Categoría - Lanpostu funtzionalaren kodea / Código categoría - puesto funcional
B12008


Categoría - Lanpostu funtzionalaren izena / Nombre categoría - puesto funcional
ERIZAINA

Contraseña / Pasahitza

Hemendik aurrera sartzeko pasahitza eskatuko zaizu, isartu pasahitz eta berretsi

.....

.....

Jarraitu / Continuar 

11.- «Jarraitu» jartzen duen lekuan sakatu ondoren, eskaerako 2. urratsera sartuko zara (eskaerako datuak).

Formulario horretan ezin da EZER aldatu , **salbu eta ordezkapen-zerrendarako aukeratutako zentroak.**

Beste edozein aldaketa egiten saiatuko bazina, aplikazioak aurreko atalera aterako zintuzke.

Eskabidea: eskabide-orria

1. Norberaren datuak	2. Eskabidearen datuak
----------------------	------------------------

Euskera / Euskara

Egiaztutako hizkuntz eskakizuna / Perfil acreditado
PL1

Carné de conducir / Gidabaimena


A B BTP C D

Solicitud / Eskabidea

LAN-POSTU HUTSEN ZERRENDA / LISTA DE VACANTES

Izena emateko area sanitarioetako bat, bi edo hiruak aukera dezakezu
Puede elegir una, dos o las tres áreas sanitarias donde desee inscribirse

Araba Gipuzkoa Bizkaia



12.- GARRANTZITSUA. «Ordezkapen-zerrenda» atalean, zure zentroak alda ditzakezu, **jarraibideetako 5. puntuan esandakoaren arabera.**

Mesedez, zinez eskatzen dizugu jarraibide guztiak irakur ditzazun, dokumentu honetako 1-4 orriak, zure eskaeran aldaketak egin aurretik.

Aplikazioak **EZ DU UZTEN** jarraibideetako 5. puntuan hitzez hitz deskribatutakoarekin bat ez datorren aldaketarik egiten, eta edonola ere, egin daitekeen edozein aldaketa jarraibide horien aurkakoa bada, ez da onartuko eta baztertu egingo da.

13.- Uribe ESI aukeratzeko (lehen, Uribeko Eskualdea) zure 2 erakundeetako bat aldatu beharko duzu, Uribekoaren ordeztu.

ORDEZKAPENEN ZERRENDA / LISTA DE SUSTITUCIONES

Jardunaldia / Jornada

Edozein jardunaldi-mota / Cualquier tipo de jornada

Lantoki asko dituen Zerbitzu Erakunde bat aukeratzeko baduzu, bere baitan gehienez bost zentro hartuko dituen azpisailkapen bat egin dezakezu. Aukera hau ez erabiltzekotan, ulertuko da Zerbitzuetako Erakunde guztietara hautatzen duzula

En el caso de elegir una Organización de Servicios compuesta por diferentes centros de trabajo, puede realizar una subdivisión que comprenda hasta un máximo de cinco centros. Si no hiciera uso de esta opción se entiende que opta por la totalidad de los centros incluidos en la Organización de Servicios

1 - Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko eta Ezkerraldeko ESI (Gurutzetako UO+Ezkerraldeko eskualdeko atala)

- E Arabako Eskualdea
 - Arabako Unibertsitate Ospitalea
 - Barakaldo-Sestaoko ESI
 - Barrualde-Galdakao ESI
 - Bidasoko ESI
 - Bilbo-Basurto ESI
 - Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarea
- ESI Debabarreneko ESI
 - Debagoieneko ESI
 - A Donostialdeko ESI (Donostia Unibertsitate Ospitalea + Gipuzkoako eskualdeko atala)
 - B Emergentziak (emergentzietako lurralde-unitateak)
 - B Erakunde Zentrala
 - G Goierri Urola-Garaiko ESI
 - G Gorlizko Ospitalea
 - K Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko eta Ezkerraldeko ESI (Gurutzetako UO+Ezkerraldeko eskualdeko atala)
 - M Lezako Ospitalea
 - M Santa Marina Ospitalea
 - O Tolosaldeko ESI (Gipuzkoako eskualdeko atala)
 - P Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa
 - P Uribeko ESI (Uribeko eskualdea)

12 (Red arrow pointing to the dropdown menu)

13 (Green arrow pointing to the 'Uribeko ESI' option)

14.- Uribe ESiko zentro guztiak nahi badituzu, ez duzu osatzen duten zentroen hautaketa partzial bat egin behar.

Aitzitik, batetik gehienez bosterako hautaketa partzial bat nahi izanez gero, eta hautaketa horrek 5. puntuari deskribatutakoa betetzen badu, horiek markatu eta «zentroa gehitu» botoia sakatu behar duzu.

LISTA DE SUSTITUCIONES / ORDEZKAPENEN ZERRENDA

Jornada / Jardunaldia

En el caso de elegir una Organización de Servicios compuesta por diferentes centros de trabajo, puede una subdivisión que comprenda hasta un máximo de cinco centros. Si no hiciera uso de esta opción se le que opta por la totalidad de los centros incluidos en la Organización de Servicios

1 -

Selección de centros ofertados / Eskaintako zentroak aukeratzea

Elijo los siguientes centros (hasta 5 por cada comarca / SME / ...) /

Ondorengo zentro hauek aukeratu ditut (eskualde / OMZ bakoitzeko gehienez 5 zentro)

Eskaintak / Ofertados

LAS ARENAS
LEIOA
MUGIALDE
SOPELANA
TXORIHERRI
ALGORTA
ASTRABUDUA
ERANDIO
GORLIZ-PLENTZIA
HOSPITAL URDULIZ

14
↓
agregar centro

15.- Ziurtatu egindako hautaketa zuk nahi duzuna dela.

1 -

Selección de centros ofertados / Eskaintako zentroak aukeratzea

Elijo los siguientes centros (hasta 5 por cada comarca / SME / ...) /

Eskaintak / Ofertados

LEIOA
MUGIALDE
SOPELANA
TXORIHERRI
ASTRABUDUA

Seleccionados / Aukeratutak



1.- LAS ARENAS
2.- ALGORTA
3.- ERANDIO
4.- GORLIZ-PLENTZIA
5.- HOSPITAL URDULIZ

↑
×
↓

16.- Bukatzeko, onartu klausula eta sakatu «berretsi» jartzen duen lekuan.

GARRANTZITSUA. Berretsi aurretik, mesedez, ziurtatu zure aldaketa-eskaera egin nahi duzuna dela. Aldaketa-eskaera bakar bat egin behar da. Bat baino gehiago eginez gero, dokumentu honetako jarraibideetako 5. puntuari deskribatutakoa betetzen duenak balioko du.

Behean sinatzen duenak **ESKATZEN DIO OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIARI** enplegu publikorako eskaintza honetan **ONARTUA IZATEA**. Era berean, bere ardurapean adierazten du eskabide honetan jasotako datuak egiazkoak direla eta deialdian beren beregi ezarritako baldintzak betetzen dituela. Eskabidean emandako datu guztiak agiri bidez egiaztatzeko konpromisoa hartzen du, hala eskatzen bazaio.

ZINPEAN AITORTZEN DUT EDO HITZEMATEN DUT  **16** 

Eskabide honetako datuak betetzeak datu horiek erabiltzeko baimena ematen dela adierazten du, aldi baterako kontratazio-zerrendak arautzeko Akordioan datuak erabiltzeari eta baimentzeari buruz ezarritakoaren arabera.